

## **BOLUNTARIOTZA PROGRAMA**

### **ONTZIAREN KONTSERBAZIOA ETA NABIGAZIOA**

#### **PROGRAMAREN HELBURU OROKORRA**

Bolondresak ontziaren mantenimendu orokorraren eta nabigazioen parte izatea.

#### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA**

MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa, ontzia bera, bildumako pieza bat da. Euskal kostaldeko baxurako azken ontzi handia, egurrez eraikia eta itsas ondare bizia dena. Kantauri itsasoaren berezko baldintza meteorologikoen eta itsasoko uraren ezaugarri fisiko-kimikoen ondorioz, itsasotik gertu dagoen objektu orok beste ingurune batzuetan baino narriadura handiagoa jasaten du, eta, beraz, mantentze-lan handiagoak behar izaten ditu.

Aldagai hauek ontziaren egurrezko eraikuntzari ere gehitzen zaizkio. Egurra material bizia eta dinamikoa da, metala, erretxina edota plastikoa bezalako material industrialekin alderatuta, ustelduraren eta narriaduraren eragina handiagoa da.

Ezaugarri hauek kontutan izanik ontziaren egoera egokia ziurtatzeko, etengabe gainbegiratu, piezak ordezkatu edo konpondu eta saneamendu prozesuak behar ditu MATERek. Bolondres programa honen helburua hortaz gizartea prozesu honen parte sentiaraztea da, hauek mantenimendu eta nabigazioan inplikatur.



## METODOLOGIAREN LABURPENA

### KONPROMEZU MAILA

- **Puntuala:** Astileroko lana 2-3 egun (Otsaila)
- **Jarraia:** Ontziaren mantenimendua eta nabigazioetan partehartzea. Konpromezua bi aldean artean erabakitzeke.

### BARNE HARTZEN DITU

- Agindutako zereginiei buruzko berariazko orientazioa eta prestakuntza.
- Zereginak egiteko materiala
- Jardueran teknikari baten ikuskapena izatea
- Boluntariora-asegurua
- Elkarlanerako akordioa

### BETEBEHARREN DESKRIBAPENA

- Astileroa:
  - Kaskoa hazkatu eta margotu
  - Muntaia margotu
- Mantenimendu orokorra:
  - Pintxe gisa laguntzea obra handietan:
    - Kubiartaren berregokitzea:
    - Margoa kentzea. Kalafateoa, kubiartako arotzeria.
    - Elektrizitatea
    - Mekanika
    - Barneko arotzeria
  - Obra txikietan gaitzea:
    - Kubiartako elementuen mententzea: kainaberak, makinillak, mastilak...
    - Mantentzea: sentina
    - Kaskoa margotu eta lixatzea
- Nabigazioak:
  - Kubiartako marinel eran laguntza: Kaboak estibatzea eta atrakeak

## BOLONDRESEN PERFILA (Adina, jakintzak, gaitasunak, hizkuntzak...)

### 1. Eskatzen diren trebetasuna

- Ikasteko grina
- Konpromezua
- Talde lanean konpontzea
- Trebea eskulanetan

### 2. Balioetsitako gaitasuna

- Zurgintza
- Iturgintza
- Mekanika
- Elektrizitatea

### 3. Interesak

- Itsasoa eta arrantza kultura
- Kultur hondarearen babesa
- Zurgintza eta artisautza
- Gizarte proiektuetan partehartze soziala


### 4. Lekua eta iraupena

Boluntariotza jarduerak MATER ontzian bertan edota garaia denean Pasaia San Juanen kokatzen den ontzian egingo dira. Boluntariotzaren konpromisoaren iraupena indarrean dagoen kanpainari egokituko zaio; boluntariotzari atxikitzea automatikoki luzatu ahal izango da, betiere boluntarioak idatziz jakinarazten ez badu baja eman nahi duela.

## PROIEKTUAREN ARDURADUNA

Markel Elizalde

## HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

 619 814 225

 komunikazioa@mater.eus